

Di Da publizitate-agentzia

Deskribapena: Kike Amonarriz Di Da publizitate-agentziakoekin (www.di-da.com) elkartu da lelo bat sortzeko darabilten metodoari buruz hitz egiteko. Bilera-gela batean daude. Pertsona bat zutik dago arbel batean ideiak idazten eta beste sei pertsona mahai baten bueltan Kikerekin batera. Tribuaren Berbak saioko Publizitatea eta Euskara atalarentzat izenburu bat pentsatzen ari dira. Lanean ari dira.

Kike: “Kontxo lanean ari zarete.”

Di da agentziako langilea: “Bai, zuendako hemen, izenburuaren bila.”

Kike: “Eee apuntatu naiteke? Oso ongi, eta zehazki, zertan ari zarete orain?”

Di da agentziako langilea (zutik dago arbelean ideiak idazten): “Ideia zurrunbiloarekin gabiltza eta hemendik hitz, berba eta hitz-joko pila bat urtengo dire, denak apuntatzen, gero.”

Deskribapena: Ideiak eta hitzak arbelean idazten ari dira. Lanean ari dira.

Di da agentziako langilea (zutik dago arbelean ideiak idazten): “Saiatuko gara kontzeptuak ez errepikatzen edo behintzat e...”

Di da agentziako langilea (zutik dago arbelean ideiak idazten): “Berba guzti hauetatik aukeratu behar doguz bost eta zalantza daukagunean kendu egin behar dugu.”

Kike (OFF ahotsa): Ideia on bat lortzeko, argi dago, ideia asko baztertu behar direla.

Deskribapena: Hitzak arbeletik ezabatzen ari dira egokienak aukeratuz.

Kike (OFF ahotsa): Azkenean aukeratu ditugu gustukoena.

Deskribapena: Lau izenburu daude arbelean idatzita.

Di da agentziako langilea (zutik dago arbelean ideiak idazten): “Bost irizpide aukeratu behar ditugu eta irizpide hauek erantzun behar diote lehengo helburuari, Euskara eta Publizitateari.”

Kike (OFF ahotsa): Izenburu deigarri bat, adibidez.

Deskribapena: Irizpideak aukeratzen ari dira denen artean.

Kike (OFF ahotsa): Eta orain puntuaketa.

Deskribapena: Izenburu bakoitza irizpideen arabera puntuatzen ari dira denen artean.

Di da agentziako langilea (zutik dago arbelean ideiak idazten): “Emaizta *Hitz eta pitz, publhitz* da.”

Kike (OFF ahotsa): Azkenean moldaketa posible eta guzti itxurazko izenburua lortu dugu (*Hitz eta pitz, publhitz* edo *Publhitz, hitz eta pitz*).Ba, jar dezagun bere lekuan, atalaren izenburuan.

Deskribapena: Tribuaren Berbak saioko Euskara eta Publizitatea atala emititzen ari dira *Hitz eta pitz, publhitz* izenburuarekin.